

BEZEROAREKIKO HARREMANAK:

- Gure bezeroak iragarkien bidez erakarriko ditugu, telebista, irrati, sare sozialen eta komunikabideen bidez iritsiko gara beraiengana. Telebista eta irrati iragarki arruntak izango dira, baina sare sozialetan kirolarekin, aldaketa klimatikoarekin edo aurreztearekin erlazioa duten influencer-ak kontratatuko ditugu gure produktua iragartzeko.

Bezeroak nola mantendu beste kontu bat da. Gure produktua ez da behin eta berriz erosten den produktua. Behin gure bizikleta estatiko bat izanda ez duzu beste bat erosteko beharrik, dagoeneko beharra asetzen duelako. Hala ere, gure kontsumitzaileei ahalik eta tratu hobereana emango diegu, arazoak badituzte 24 orduko asistentzia emanda, seguru on bat eskainita eta froga periodo bat emanez bueltatu nahi badute aukera izan dezaten. Modu honetan gur eproduktuaz ongi hitz egingo dute eta beste norbaiti gomendatzea posible da.

Bezeroen ongizatea da gure lehentasuna, horregatik urtean behin hainbat bezerorekin elkartu eta hobekuntza proposamenak entzuteko irekiak egongo gara, ahalik eta zerbitzu onena eskaintzeko. Hara ere, gure bezeroarentzako arreta 24 orduz egongo da erabilgarri.

Erosketari dagokionez bi eratakoa izan daiteke; online edo dendan bertan. Bi kasuetan etxera bidaliko dugu bizikleta eta guk montatuko dugu guztia.